

## URREZKO EZTEGUAK ORUEN MEZAREN HASIERAN

Urrezko eztegu  
ospatzen doguna  
hau da poztasuna!  
Monja laukote honek  
eskeintzen deuskuna.  
Berrogeita hamar urte  
goi-deia entzuna  
txit leiala izan da  
lauron erantzuna.  
Eskerrak emoteko  
da gaurko eguna.

Gure lagun Fatima  
da Nabarriztarra  
bada su ta garra  
monjatzan bokazinoz  
Ahizpa Pasiotarra.  
Ibili dan lekuau  
zintzo ta azkarra;  
Hau behintzat ez da izan  
arbi hazi txarra...  
Merezi dau eta jo  
txalo zaparrada.

Begoña Mallea da  
orain bigarrena  
pozik datorrena  
Munttubarko alaba

**(Martzel)** Anai-arrebok: gaurko berbaldia Jaunaren Berban oinarritua izango da: Entzun doguna Liburutik irakurrita, eta Lau Ahizpa Pasiotar honeek euren bizitzan haragi bihurtuta esango deuskuena: Fatima, Begoña, Kontze eta Pilar, euren Erlbijosa bizitzako 50 urteurreneko URREZKO EZTEGUETAN. Laukote hau batera hasi zan bide barrian, bakotxa hara-hona sakabatuta ibili dira zerbitzen eta gaur batera daukaguz Urrezko Ezteguak ospatzen geure artean. Bakotxaren fede-esperientziaren urrats batzuk entzungo doguz, geure fede-bitzzarako bultzagarritzat.

**FATIMA** Fatima Nabarnizko alaba dogu, baserri-neska ederra, eguneroko ogia eguneroko izerdiz ondo bustita jandakoa urte askotan. Dantza eta jaizalea, arik eta, izar artetik Norbaitek kinu maitekor bat egin eutsala-ta, dana itzi eta Hari jarraitzea erabagi arte. Ea berak zeozertxo gehiago argitzen deuskun.

**(Fatimak)** *Nik zer esan behar dot ba? Hainbeste gauza esateko eta bat be ezin esan ganoraz. Orain berrogeita hamar urte Jesusi betiko baietza emon neutsanean, gauzak beste modu batera ikusten ziran, bai Eleizan eta bai munduan. Neu be ez naz gitxi aldatu! Bainaz zorionez, nire bizitzako zimenduak ez dira aldatu, eta hori da nahiko. Nik badaukat Santokristo eder bat, orain berrogeita hamar urte baino lehenagotik, eta gaur arte ez dot topau Bera baino lagun hoherik munduan, baztar asko arakatu arren. Jesus lehen, gaur eta beti bat eta bera da, baita neu be Berarentzat. Tramankulu asko erabili dot esku artean: astoa, karretilea, autobusa eta neurri askotako kotxeak; baina neu beti erabili nau gidaririk onenak: Jesus Gure Jaunak. Egia esan, Jaungoikoak Berak daki zergaitik, baina Beretzzat aukeratu ninduan eta osorik eta betiko emon neutsan baietza. Eta argilunetan zehar, hemen naukazue berrogeita hamar urte geroago, Berari eskerrak.*

**(Martzelek)** Gracias, H<sup>a</sup> Fátima, por tu sincero testimonio. Cuando empezaste este largo camino en seguimiento de Jesús, no te imaginarías las cosas que ves ahora desde esta cima de los 50 años de vida religiosa. Pero no han cambiado ni la llamada de Jesús ni tu respuesta a su llamada. Y eso basta. Dios es grande con los pequeños de este mundo. Y tú, Fátima, a seguir sirviendo y sonriendo, haciendo realidad lo dicho por el papa Francisco: *"No se puede pensar en una monja que no sea fe-cunda. Esto no es católico! Eso es la belleza de la consagración. Es la alegría! La verdadera alegría".*

### BEGOÑA

**(Martzelek)** Gutariko bakotxak daukagu bizitzako historia bat; ataltxo batzuk askok dakiez, baina sakonenak eta ederrenak Jaungoikoak bakarrik. Hemen dogu Bergoña Mallea,

argi ta lerdena.  
Kurutzeko Jesus dau  
lagun maiteena,  
gaixo, behartsuentzat  
ama baten sena,  
hartu danen partetik  
txaloz goralpena.

Munttubartarra. Berak emongo deusku bere bizitzako atal batzuen barri, beragaz bat eginda, geuk be Jaunari eskerrak emoteko.

**(Begoña)** "Ni Ahizpa Pasiotarra naz. Nire bizi- oinarria bat da, lehen eta orain: Kurutzeko Jesus, gure Salbatzailea. Bera da gure bidea, indarra eta itxaropena: Kurutzeko Jesus. Bere bizia emon dau, guretzat bizi barri betikoa irabazi gurarik; orain guk geure bizia, egunero maitasunez emonez, erantzuten ahalegindu naz. Gure sarrera orain 50 urre izan zan; handik hona, aldaketa haundiak egon dira. Eta gu ere aldatu gara, Eleiza osoagaz batera, geu ere gaurkotu egin gara. Nahi ta naiehazkoa da, hazia erein aurretik, lurra landu eta egokitzea. Betiko KARISMA zerbitzua gaurko giroan landu eta zaindu behar izan dogu. Gehien kostatzen dana hauxed da: egunero Jesus Kurutzedunari jarraitzea; atzokoa sendo badago, gaurkoari errezago erantzungo deutsagu. Ni oso pozik bizi naz emondako baietzagaz eta on egiteko izan dodazan hainbeste aukerakaz. Jaunaren maitasunak ez dauka neurrikirik.

*Mila esker etxeko, senide, lagun eta hemen gaur gure inguruuan batu zareen guztioi. Eskerrik asko!*

**(Martzel)** "AHIZPA PASIOTARRAK", ederra eta esanahi aberatsekoa da izena! Jaungoiko Aitaren amatasuna bere seme-alaba gaixo eta makalenei agertzea izan da Begoñaren bizitzako helburua. Como nos dice el papa Francisco: "*La primera misión de la Iglesia es curar los corazones doloridos, transmitiendo a tantos pobres, enfermos y deshechados de la sociedad la misericordia de Dios*". Beronen abizenak dinonez, Begoña Malleak zeregin horretan emon dau bere mailea.

Kontze Erletxetan zan  
jaio kristau lore  
zer poz ta adore!  
ez jakoz falta izan  
grazi ta umore.  
Jaunak emonda mila  
dohai ta balore,  
laikoekin lanean  
alkarraz dotore;  
Jaunari esker, zuri  
txalo ta ohore.

## **KONTZE**

**(Martzelek)** Egia esan, bateatutako guztiok dogu duintasun, kategoria bardina, Jesus Jaunak bere anai-arreba egin gaitualako, Aita bakar baten seme-alaba. Kategori horretaz jabetu eta horri erantzuten ahalegintzea da guri dagokigun santutasuna. Kontze Erletxetako baserri baten jaioa da, ama santa baten alaba. Honek erakutsi eutsan zer dan benetan kristau izatea. Bide horri jarraitzea baino zer gehiago behar eban?

Ea berak zer dinoskun:

**(Kontzek)** *Mi llamada fue un tanto pensada y meditada. Yo era feliz, tenía una familia que me quería mucho vivía con mi madre y con mi hermana gemela Conchi, tenía un trabajo donde me sentía a gusto. Nada me faltaba para ser feliz, pero no me encontraba a gusto, algo faltaba en mí.*

*Por fin, en unos Ejercicios y con la ayuda de personas muy queridas me lancé en radical seguimiento de Jesús. En estos 50 años he tenido muchas personas que me han ayudado a ser fiel al Señor Jesús tanto entre las religiosas de las comunidades, como en mi relación y mi trabajo con los laicos. Estos, los laicos, me han ayudado muchísimo con su entrega en el trabajo, como en su fidelidad en el seguimiento al mismo Señor Jesús en su vida laical, trabajando en la misma viña por el Reino de Dios. Por no alargarme más, les recuerdo ante el*

*Señor y les doy inmensas gracias por lo mucho que les debo. Yo tengo experiencias de jóvenes y no tan jóvenes que desde su laicado están dando a la Iglesia testimonios fuertes de entrega por los más desfavorecidos de la sociedad con una entrega radical que me han interpelado y me siguen interpelando.*

**(Martzel)** Entzundakoa da nahiko. Santutasuna, lorea baino gehiago frutua da. Eta bakotxak emoten dau bere frutua Jaunak landatutako lekuau. Agertu deuskunez, hasiera eta azkena guztiok doguz bardinak; bidea eta egitekoak dira ezbardinak. Bainan alkarren osagarri. Beragaz batera Jaunari eskerrak emotekoa da.

Pilarrentzat izan da  
laugarren saioa  
hau pozkarioa!  
Naparroan Mugairen  
mundura jaioa.  
Zerbitzari apala,  
laguntzen iaioa.  
Emonkorra izan da  
zure bataioa,  
zuretzat da gaur, Pilar,  
txalo-jarioa.

### **PILAR**

**(Martzelek)** Dakigunez, Nazareteko Jesus txikien artean jaio, hazi eta hil zan. Eta berbiztuta gero ere, bide bardinetik jarraitzen dau. Txikizalea da, haundi-ustekoak alde batera izten ditu. Pilar Naparroan, Baztan aldeko auzo txiki batean jaio zan; Iurretako Ahizpa Pasiotarren Arriaundiko komentuan egin eban sarrerra. Zerura jasoa izan dan Andre Mariaren jaieguna bai pozgarria berarentzat! Ez al da horrela, Pilar?

**(Pilarrek)** *En la semana de Ejercicios espirituales en Aránzazu, he dado un vistazo a mis 50 años de vida religiosa, desde el primer Sí a Jesús Crucificado en la Congregación de las Hermanas Pasionistas de San Pablo de la Cruz, y me he visto muy parecida a María, aunque en un nivel muy inferior: También a mí me costó mucho dar el Sí definitivo. Mi vida,, bajo la obediencia religiosa, me ha llevado por caminos de servicio sencillo, sobre todo entre los pobres y enfermos. Como María, he procurado vivir la entrega silenciosa en medio de los misterios de la vida. Y hoy aquí me encuentro con mis tres compañeras en la fiesta de la Asunción de Marí; también yo llena de agradocimiento al Señor, que ha hecho cosas que superan mi capacidad. Mi respuesta ha sido el servir, lo demás es asunto del Señor. Hoy os pido a todos que me acompañéis a dar gracias a Dios por tantas gracias.*

**(Martzelek)** Ai Pilar, Pilar! Nolako bidezidorra erabili duzun berrogeita hamar urte hauetan gailur hontara iristeko? Ez da zalantzari, Nazareteko Mariak eraman zuena berbera: Zerbitzari izatea. Haren lema berbera hartu zenuen zuretzat: "Hona hemen ni zure mirabea". Isilean eta ezkutuan besteei lagundu, bizitza gozatu, gurutzak arindu... Covirtiendo en realidad lo dicho por el papa Francisco a las religiosas: "Cuando una monja no es madre de todos aquellos con los que trabaja, se entristece". Eta Pilarren ezaugarria beti izan da irripar goxoa.

### **MEZA AMAIERAKO AGURRA**

Fatima, Kontze, Begoña, Pilar / laukotearen izenak, Jaunak noraino jaso dituan / munduarentzat azkenak. Harrigarriak egin ohi ditu / Jaungoikoaren ahalmenak, Mariarekin bat eginda gaur / Jainkoari goralpenak, eta Laukote maite honeri / gaur txalorik beroenak.